



Atabo Altsasu S.L.
B-71026074
C/Garcia Ximenez 36, Alsasua 31800

**DANTZALEKU KIROLGUNEKO TABERNA-JATETXEA KUDEATZEKO KONTRATUAREN
BALDINTZA ERREGULATZAILEAK**

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK: INFORMAZIO-TAULA

A- KONTRATUAREN XEDEA

Altsasuko Dantzaleku kirolgunekeo taberna-jatetxearen ustiapena.

CPV KODEA:

- 55410000: Tabernak kudeatzeko zerbitzuak.
- 90910000: Garbiketako zerbitzuak.

B – PROZEDURA

Europar Batasuneko atalasetik beherako prozedura irekia. 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu publikoei buruzkoa.

C – KONTRATUAREN IRAUPENA

Baldintza-agiriaren 4. klausula: Urtebete, 5 urte gehiago luza daitekeena.

E - BERMEAK

Behin betikoa: 1.020 €

F - KAUDIMEN EKONOMIKO, TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Baldintza-agiriaren 8. klausula.

G - PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez da onartuko.

H - TRAMITAZIOA

Ohikoa.

I - PUNTUAZIO TEKNIKO ETA EKONOMIKOAREN HAZTAPENA

<i>Kudeaketa- eta ustiaketa-plana</i>	50
<i>Instalazioak kontserbatu, mantendu eta garbitzeko plana.</i>	25
<i>Irizpide sozialak</i>	25

GUZTIRA 100

J – KONTRATAZIO-MAHAIAREN EKINTZEN ZUZENBIDEA

ATABO ALTSASU, SL
gerencia@ataboaltsasu.com



**ALTSASUKO DANTZALEKU KIROLGUNEKO TABERNA-JATETXEA KUDEATZEKO
KONTRATUAREN BALDINTZA ARAUTZAILE JURIDIKO ETA EKONOMIKOAK**

1. XEDEA.

Dokumentu honen xedea da Dantzaleku kirolguneko taberna-jatetxea ustiatzeko emakida-kontratua arautuko duten baldintzak ezartzea.

Taberna-jatetxea eta kirolgunea Dantzaleku, 1. 31800. Altsasu (Nafarroa) helbidean daude, eta horien ondoan berdegunea eta Usolarrain aisialdi-gunea.

2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia honela kalkulatzen da: urtero aurreikusitako mozkin gordina bider kontratuaren gehieneko urte kopurua: $10.200\text{€} \times 5 = 51.000\text{€}$.

ATABO ALTSASU, SLk ez dio ekarpen ekonomikorik egingo emakidadunari esleipendunaren ustiapen-kontua orekatzeko, eta ustiapen horretatik lortzen dituen diru-sarrerekin soilik ordainduko da.

3. ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA.

Entitate kontratatzailea ATABO Altsasu, SL merkataritza-sozietatea da, eta kontratazio-organoa sozietatearen Administrazio Kontseilua, haren estatutuen arabera.

4. IRAUPENA

Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da (lau urte gehiago luzatu daiteke, gehienez ere bost urte), Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 45.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Kontratua formalizatu eta biharamunean hasiko da prestazio-aldia, dagokion fidantza entregatu ondoren.

Lehenengo urtea amaitu baino 2 hilabete lehenago alderdietako batek ere ez badio beste alderdiari ezer jakinarazten, kontratua beste urtebetez luzatuko da automatikoki, eta horrela hurrenez hurren, gehieneko mugara iritsi arte.

5. LOTEAK

Kontratu hau ezin da lotetan banatu, kontratuaren xedea prestazio bakarra ematea baita. Horregatik, eta 2/2018 Foru Legearen 41. artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik, kontratu honen xedea lote bakar batean kudeatuko da. Era berean, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 36. artikuluan aurreikusitako erreserba ez egitea erabaki da.



6. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Agiri honen xede den kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean xedatutakoaren arabera.

7. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuaren araubide juridikoa, 2/2018 Foru Legearen 34.2 artikuluari jarraikiz, honako hau da:

Kontratuak prestatu eta esleitzeari dagokionez, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen arabera arautuko dira.

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko zaizkie, salbuespena izanik Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legean exekuzio, aldaketa eta azpikontratazio baldintza bereziei buruz ezarritakoa.

Jurisdikzio eskudunari dagokionez, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 35. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Alderdi kontratugileak baldintza-agiri honetan ezarritakoaren mende egongo dira, bai eta Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legean eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren mende ere.

8. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Lizitazio-prozesuan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten eta ekonomia- eta finantza-kaudimena, gaitasun teknikoa edo profesionala dutela egiaztatzen duten pertsona natural edo juridikoen, espainiarrek zein atzerriarrek, baldin eta kontratatzeke debekurik ez badute. Baldintza horiek bete beharko dira eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean.

Atabo Altsasu SLk elkarrekin parte hartzen duten enpresa lizitatzailleekin kontratatu ahal izango du, 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan adierazitakoarekin bat.

Interesdunek proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzailleak baldintza-agiri hau osorik onartzen duela, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Atabo Altsasu SLk elkarrekin parte hartzen duten enpresa lizitatzailleekin kontratatu ahal izango du. Kasu horretan, elkartutako enpresa lizitatzailleek Atabo Altsasu SL enpresaren aurrean solidarioki behartuta egongo dira, enpresa bakoitzaren partaidetza adieraziko dute eta ordezkari edo ahaladun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik eratortzen diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak izango dituen kontratua azkendu arte. Nolanahi ere, botere mankomunatuak eduki ditzakete, enpresek zenbateko esanguratsuko kobrantzak eta ordainketak egiteko emanak.

Bi enpresak parte hartzen badute, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko du ABEEan edo taldean partaidetza handiena duen enpresak,



edo enpresetako batek, betiere biek partaidetza-portzentaje bera badute.

Bi enpresak baino gehiagok parte hartzen badute, aldi baterako enpresa-elkartearen gutxienez % 50eko ordezkaritzak egiaztatu beharko du kaudimena.

Betiere, pertsona naturalak edo juridikoak izan behar dute. Azken horiek, baldin eta haien xedeak edo jarduerak kontratuaren xedearekin edo jarduerarekin lotura zuzena badute, bakoitzaren estatutuen edo sorrerako arauen arabera, edo behar bezala egiaztatzen badira eta kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak dituen erakundea badute.

9. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Lizitazioan parte hartzen dutenek kontratua gauzatzeko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa dutela egiaztatu beharko dute, finantza-erakundeek emandako kaudimen-txosten baten bidez. Txosten horretan, honako hau adierazi beharko dute hitzez hitz: *"Enpresaren edo profesionalaren datu nagusiak aztertu ondoren, ondorioztatzen da lizitazioak bere gain har ditzakeela kontratu hau gauzatzearen ondoriozko arriskuak"*

10. KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Esleipendunaren kaudimen teknikoak agiri hauen bidez egiaztatu beharko da:

1.- Enpresaburuaren eta kontratua gauzatzeko ardura duten langileen titulazioak eta jarduera profesionalak aurkeztea (curriculum vitae).

2.- Azken hiru urteetan taberna, kafetegi, jatetxe edo antzekoen ustiapenean izandako esperientziaren azalpen xehakaturik, honako hauek azalduz: zenbatekoak, datak eta hartzaileak (publikoak zein pribatuak). Horiek baliozkotzeko hartzaileek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Enpresa sortu berriak badira, lizitaziora aurkezten diren langileen azken hiru urteetako esperientzia aurkeztu beharko da kontratuaren xedean. Esperientzia egiaztatzeko, zerbitzua zein enpresatan eman duen, hark egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

3.- Zerbitzua ustiatzeko eskuragarri duen materialari buruzko adierazpena.

4.- Kontratuaren baldintza-agirietan eskatzen diren giza baliabide eta baliabide material zehatzak kontratuaren exekuzioari atxikitzeko konpromisoa.

11. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

11.1. TOKIA ETA EPEA

Entitate lizitatzailerik bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean, ezin izango du beste entitate lizitatzailerik batzuekin batera parte hartzeko proposamenik izenpetu, baldin eta banakako proposamena aurkeztu bada, eta ez da talde horietako batean



baino gehiagotan egongo. Arau hori hausteak eta elkartutako enpresek eskaintzak aldi berean aurkezteak eskaintzak baztertzea ekarriko du berarekin.

Proposamenak aurkezteak lizitazioa arautzen duten baldintza-pleguko klausula guztien edukia baldintzarik gabe onartzea dakar, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Lizitazioan interesa dutenek Kontratazio Atariaren bidez eskuratuko dute pleguei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria, eskatzen dutenetik hiru eguneko epean.

Eskaintza osatzen duten dokumentuak Nafarroako Lizitazio Elektronikoen Plataformaren bidez (PLENA) soilik aurkeztu ahalko dira. Plataforma hori Nafarroako Kontratazio Atariko (www.contrataciones.navarra.es) lizitazio-iragarkian egongo da eskuragarri, hurrengo paragrafoetan ezarritakoaren arabera.

Halaber, interesdunentzako komunikazioak eta tramitatu behar diren gainerako jarduketak Nafarroako Lizitazio Elektronikoen Plataformaren bidez egingo dira.

Eskaintzak aurkezteko epea HAMABOST egunekoa izango da, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Enpresa lizitatzailerak bere eskaintza ixten duenean, haren edukiaren azterna bat sortuko da – laburpen kriptografikoa –, eta eskaintza jasota geratuko da. Lizitatzailerak arazoak* baditu eskaintza PLENAn aurkezteko, eta arrastoa – laburpen kriptografikoa – Kontratazio-organoari bidaltzen bazaio eskaintzak aurkezteko epearen barruan, posta elektronikoz, Kontratazio Atarian ezarritako harremanetarako helbidera, 24 orduko epea izango da eskaintza osorik jasotzeko eta agiri guztiak aurkeztu direla ulertzeko. Baldintza horiek bete ezean, parte hartzeko eskaera ez da onartuko, baldin eta lizitazio-iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen bada.

** ondorio horietarako, ohartarazten da zenbat eta handiagoa izan eskaintzaren pisua (MBtan neurtuta), orduan eta luzeagoa izan daitekeela hura bidaltzeko behar den denbora. Hori guztia beste inguruabar batzuk ere kontuan hartu gabe, hala nola konexioaren kalitateak eragindako datuen igoera-abiadura txikiagoa izatea, edo beste batzuk.*

Eskaintzak jasotzen dituen ekipoaren orduak bat etorri behar du, gehienez ere, 5 minutuko desfase-tartearekin, Nafarroako Gobernuaren zerbitzariaren orduarekin.

Nafarroako Gobernuaren zerbitzariak, erreferentzia gisa, Denbora Unibertsal Koordinatua (UTC) erabiltzen dute, erreferentziako nazioarteko laborategiek mantentzen duten denbora-eskala unibertsala, zehaztasun honekin: +/- 1seg. Hori da, beraz, zerbitzu elektronikoen ordu ofiziala

- Lehen mailako ordutegi-iturria: hora.roa.es (Real Instituto y Observatorio de la Armada: bi zerbitzari San Fernando de Cadiz herrian daude eta hirugarren bat, Madrilén).
- Ordu-iturri sekundarioak:
 - canon.inria.fr , INRIA, Paris
 - i2t15.i2t.ehu.es , UPV-EHU



Gutun-azalak irekitzean, epez kanpo aurkeztutako eskaeraren bat detektatzen bada, eta horren gainean aztarna bat jaso bada, hura baliozkotu egingo da, baldin eta arrastoa bat badator eskaerarekin, eta harrera-data luzatutako 24 orduen barruan badago, eskaintza baliozkotzat jo eta ireki egingo da.

Aitzitik, aztarna bat ez badator, edo eskaintza luzatutako 24 orduko epetik kanpo jaso bada, baztertu egingo da, eta ez da inoiz haren edukia irekiko.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo erakunde lizitatzailleak aurkezteko arazo teknikoak izan dituela argudiatzen badu, egiaztatuko da ea eskaintza aurkezteko unean Plataforman arazo teknikoak egon ziren. Plataformaren ohiko funtzionamenduan inzidentzia teknikoren bat gertatu bada bakarrik onartuko da aurkeztutako eskaintza. Lizitatzailleak prozedura ez ezagutzeak edo plataformatik kanpoko arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintza epez kanpo aurkeztea, eta baztertzea ekarriko dute.

11.2. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Kontratazio Atariaren lizitazio-iragarkiaren bidez, Nafarroako Lizitazio Elektronikoko Plataformaren espaziora (PLENA) sar daiteke. Bertan, lizitazioan interesa duen edonork mahaigaineko aplikazio bat deskarga dezake, gutun-azal digitalaren bidez eskaintzak prestatu eta aurkezteko. Aplikazio hori behin bakarrik deskargatu behar da, eta haren mende dagoen edozein entitatek erabili ahal izango du ondorengo edozein lizitaziotarako, PLENA erabiliz.

Eskaintzak lizitatzaillearen mahaigainean zifratzen dira, horretarako mekanismo estandarrak erabiliz, eta, behin aurkeztuta, toki seguruan uzten dira.

Sinadura elektroniko aitortu bidez sinatu beharko da eskaintza. Sinadura hori ziurtapen-zerbitzuen emaile batek emango du, eta dokumentuaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien nortasuna eta osotasuna bermatuko ditu, Sinadura Elektronikolari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean eta kontratazio publiko elektronikoko gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera.

Eskaintza elektronikoan erantsitako fitxategi indibidual bakoitzaren tamaina baimendua 50 MB da. Eskaintzaren tamaina osoa, hura osatzen duten dokumentu guztiekin, gehienez ere 100 MB-koa izango da. PLENAk ez du mugarik ezartzen eskaintza bati erantsi dakizkiokeen artxiboen kopuruan.

Eskaintza aurkezteko eranstean diren dokumentuetarako onartutako formatuak normalean erabilitakoak dira (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, fitxategiak), eta, ordezeko neurri gisa, beste formatu batzuetako artxiboak eransteko, fitxategi konprimitu batean bil daitezke (ZIP).

Plataformaren formularioetan sartutako balio objektiboen eta irizpide bakoitzari babes ematen dioten dokumentu erantsien artean desadostasunik egonez gero, lehentasuna izango dute erakunde edo enpresa lizitatzailleak edo ordezkaritza-ahalordea duenak elektronikoki sinatutako dokumentu eta eranskinek.

Lizitazio elektronikoaren plataforman eskaintza honetarako ezarritako egituraren arabera



aurkeztuko dira lizitatzailleen proposamenak eta hiru gutun-azal izango ditu, honela identifikatuta:

- "A gutun-azala: Dokumentazio administratiboa".
- "B gutun-azala: formulen bidez kuantifika ezin daitezkeen irizpideei buruzko eskaintza"
- "C gutun-azala: formulen bidez kuantifika daitezkeen dokumentazioa" Gutun-

azal bakoitzak agiri hauek izan beharko ditu:

A gutun-azala. "Dokumentazio administratiboa".

Agiri hauek sartu beharko dira nahitaez:

1. Aurkezten diren entitate lizitatzailleen edo lizitatzailleen identifikazioa; pertsona fisikoak, baterako partaidetzak, pertsona juridikoak eta aldi baterako enpresa-elkarteak izan daitezke. Era berean, entitate lizitatzailleen helbide elektroniko bat emango da, I. Eranskinean aipatzen den ereduaren arabera.

2. Entitate lizitatzailleen edo, hala badagokio, haren ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, kontratatze eskatzen diren baldintzak betetzen dituela adieraziz. Adierazpen hori II. eranskinean adierazitako ereduaren arabera izango da.

3. Proposamena elkarrekin edo aldi baterako enpresa-elkartean parte hartzen duten erakunde lizitatzailleek izenpetzen badute, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena sinatu eta agiri pribatu bat erantsiko du. Agiri horretan batera parte hartu nahi dutela eta bakoitzari dagokion partaidetza-portzentajea adierazi beharko dute, eta ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatuko dute, kontratatutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalmena izango duena, kontratua iraungi arte. Parte hartzen duten enpresek eta ahaldunak sinatu beharko dute idazkia.

4. Azpikontratazioen kasuan, entitate lizitatzailleak azpikontratisten zerrenda bat aurkeztu beharko du, bai eta kontratua gauzatzeko haiekin konpromiso formala hartu dela egiaztatzen duen dokumentu bat ere.

B gutun-azala: "Formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa".

Gutun-azalean agiri hauek sartu beharko dira nahitaez:

1. Kudeaketa- eta ustiapen-plana, honako hauek jasoko dituen: zerbitzuaren planteamenduaren eta garapen-moduaren deskribapen orokorra eta enpresa lizitatzailleak taberna-jatetxearentzat eskaintzen dituen zerbitzuak.

2. Instalazioak kontserbatu, mantendu eta garbitzeko plana.

C gutun-azala: "Formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa"

Gutun-azal horretan, erakunde lizitatzailleak eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko eskaintza sartuko ditu. Zehazki, honako hauek:



a) **Taberna-jatetxearen zerbitzua.**

b) **Irizpide soziala.** Enpresak konpromisoa hartzen du lan-merkatuak kaltetutako edo lan-egoera larrian dauden pertsonak kontratatzeke.

Proposamena **III.** eranskineko ereduaren arabera egingo da.

Proposamena erakunde lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatu beharko du. Baterako partaidetzako lizitazioen kasuan, kide guztiek edo haien ordezkariak sinatu beharko dute.

A eta B gutun-azaletan eskaintza ekonomikoari edo formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko edozein aipamen sartzeak proposamena ez onartzea edo baztertzea ekarriko du.

12. KONTRATAZIO-MAHAIA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Kontratazio-mahaiak proposamenak ireki eta legeak agindutako gainerako eginkizunak egingo ditu, eta honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria:

- Idoya Ibáñez de Opacua Amillano andrea, Atabo Altsasu, SL sozietatearen Administrazio Kontseiluko presidentea.

Bokalak:

- Atabo Altsasu, SL sozietatearen Administrazio Kontseiluko gainerako kideak.
- Beñat Olló Irujo: Atabo Altsasu SL sozietateko kudeatzailea.
- Sara Salazar Romo, Altsasuko Udaleko kirol-teknikaria.
- Isaac Valencia Alzueta, udal idazkaria.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatzailleek 1. gutun-azalean aurkeztutako administrazio-dokumentazioa kalifikatuko dute.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago eta zalantzarik bada, eskaintza aurkeztu duenari eskatuko zaio ziurtagiriak eta dokumentuak osatzeko edo zuzentzeko, gutxienez bost egun naturaleko epean, errekerimendua jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Errekerimendu hori bitarteko telematikoen bidez egingo da, PLENaren jakinarazpenetarako moduluaren bidez. Zuzentzeko epea igarotakoan eskatutako informazioa osatu edo zuzendu ez bada, prozeduratik baztertuko da, eta horren berri emango da agiri bidez.

Behin administrazio-dokumentazioa kalifikatuta, Kontratazio Mahaiak 2. gutun-azala irekiko du ("Formulen bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa"), eta enpresa onartuen esleipen-irizpideen arabera baloratuko du, adierazitako irizpideen arabera behar bezala haztatuta.

Kontratazio Mahaiak, ekitaldi publikoan, PLENaren bidez eskuratu ahal izango dena, Nafarroako Kontratazioaren Atarian gutxienez hiru egun lehenago argitaratutako lizitazio-iragarkian adierazten den egunean eta orduan, honako hauek argiratutako ditu plataforman:



lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioaren emaitza, onartuak izan diren erakunde edo pertsona lizitatzailleak, onartuak izan ez direnak eta ez onartzeko arrazoiak, baita egindako proposamenen balorazioa ere.

Kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena egin duen erakunde lizitatzailari jakinaraziko dio.

13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Enpresek sexuaren arabera bereizitako datuak erabiliz idatziko dute proposamena, betiere pertsonen buruzko datuak sartzen badituzte.

Enpresa esleipenduna hautatzeko, proposamenak honela baloratuko dira:

1. -Kudeaketa- eta ustiaketa-plana Gehienez 50 puntu.

Gehienez ere **25 puntu** emango dira zerbitzuaren planteamenduaren eta garapen-moduaren deskribapen globalagatik.

Gehienez ere **25 puntu** emango dira enpresa lizitatzailleak taberna-jatetxerako eskaintzen dituen zerbitzuen arabera, eta honela banatuko da puntuazioa:

ESKANTZEN DIREN ZERBITZUAK	PUNTUAZIOA
Hamaiketakoak	2,5
Bazkariak	2,5
Afariak	2,5
Ogitartekoak	2,5
Pintxoak	2,5
Terraza-zerbitzua	2,5
Izozkien kioskoa	2,5
Beste zerbitzu batzuk (urtebetetze- ospakizunak, eta abar)	Puntu 2,5 zerbitzu bakoitzari

3.- Instalazioak kontserbatu, mantendu eta garbitzeko plana.

Gehienez ere **25 puntu** emango dira instalazioak kontserbatzeko, mantentzeko eta garbitzeko planagatik, eta honela banatuko da puntuazioa:

EGINKIZUNAK	PUNTUAZIOA
Prebentziozko mantenimendua	8
Mantentze-plan zuzentzailea	5
Garbiketa-plana	12

4.- Irizpide soziala: gehienez 25 puntu.

Enpresak konpromisoa hartzen du lan-merkatuak kaltetutako edo lan-egoera larrian dauden pertsonak kontratatuzko kontratu hau gauzatzeko:



Gazte langabeak (30 urtetik beherakoak izan behar dute) eta/edo iraupen luzeko langabeak kontratatze konpromisoagatik 25 puntu emango dira gehienez. Enpresak kontratua gauzatzeko zer langile kontratatuko dituen adierazi ondoren egingo da puntuen banaketa. Horrela, talde horietako pertsona gehien enplegatzeko konpromisoa hartzen duen lizitatzailerik gehienezko puntuazioa jasoko du, eta gainerako lizitatzailerik zuzeneko proportzionaltasuna aplikatzearen ondoriozko puntuazioa lortuko dute.

14. BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Bi eskaintza edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, berdinketa hausteko irizpide hauek aplikatuko dira, hurrenkera honetan:

- 1) Behin-behineko langileen portzentajerik txikiena, betiere % 10 baino handiagoa ez bada.
- 2) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten langile finkoen ehuneko handiena, betiere enpresak edo profesionalak plantillan desgaitasuna duten langileen % 2 baino gehiago badu, kaudimena egiaztatzeke unean.

Aurreko irizpideak aplikatu ondoren berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebaztuko da.

Berdinketa hausteko irizpideak aplikatzeko, eragindako erakunde lizitatzailerik eskatuko zaie bost egun naturaleko epean dagokion dokumentazioa aurkezteko.

15. ESLEIPENDUNAK GAITASUNA ETA KAUDIMENA EGIAZTATZEKO AGIRIAK AURKEZTEA

Kontratua kudeatzen duen unitateak esleipen-proposamena egingo zaion pertsonari egoera hori jakinarazten dionetik gehienez ere 7 eguneko epean, esleipendun izateko proposamena egingo duen pertsonak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu, PLENaren bidez:

1. Erakunde lizitatzaileraren eta, hala badagokio, proposamena sinatzen duen ordezkariaren nortasuna egiaztatzen duten agiriak, honako hauek:

- 1.1.- Nortasun Agiri Nazionala (edo erregelamendu bidez ordezkatzeko duen dokumentua), pertsona fisikoaren edo banakako enpresaren kasuan.
- 1.2.- Erakunde lizitatzailerak pertsona juridikoa bada, eratze- edo aldatze-eskritura, Merkataritza Erregistroan inskribatua, aplikatzeko zaion merkataritza-legeriaren arabera betekizun hori eska daitekeenean Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeke, eratze-eskritura edo -agiria, aldaketa-agiria, estatutuak edo sortze-akta aurkeztu beharko dira, jardura arautzen duten arauak jasotzen dituen eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta daudenak.

Beste pertsona baten izenean proposamenak aurkeztu edo sinatzen dituztenek, notario-ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, dagokion erregistroan inskribatuta agertu



beharko duena, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako eskrituran halakorik jasotzen ez bada, bai eta ahalordedunaren Nortasun Agiri Nazionala edo erregelamendu bidez ordeztzen duen dokumentua ere.

Enpresa azaroaren 5eko 236/2007 Foru Dekretuak araututako Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailen Borondatezko Erregistroan inskribatuta badago, enpresaren nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzeko nahikoa izango da Internet bidez elektronikoki lortutako Erregistro horretako inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkeztea, bai eta haren indarraldiaren erantzukizunpeko adierazpena ere.

1.3.- Eskaintza elkarrekin parte hartzen duten erakunde lizitatzailerek aurkezten dutenean, erakunde bakoitzak bere nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatuko ditu, eta agiri pribatuan adierazi beharko ditu enpresa sinatzaileen izenak eta inguruabarrak eta enpresa bakoitzaren partaidetza. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean Administrazioaren aurrean ordezkaritza osoa izan behar duen pertsona edo entitatea izendatu beharko dute. Dokumentu hori elkartutako erakunde lizitatzailerik bakoitzak edo haien ordezkariak sinatu beharko dute.

Erantzukizuna solidarioa eta zatiezina izango da beti kontratutik datozen betebeharrak guztietan.

2. Entitatearen identifikazio fiskaleko zenbakia. Eskaintza elkarrekin parte hartzen duten enpresek aurkezten badute, IFZ enpresa bakoitzak jarriko du.

3. Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzen duen dokumentazioa, bai eta kaudimen tekniko eta profesionala ere, baldintza-agiri honetan eskatzen den moduan.

4. Erakunde lizitatzailaren erantzukizunpeko adierazpena, indarreko xedapenak ezarritako laneko arriskuen prebentzioari, segurtasunari eta lanari buruzko betebeharrak (sexu-jazarpenaren edo sexuan oinarritutako jazarpenaren kasuan jarduteko protokoloa barne) egunean dituela adierazten duena, bai eta, hala badagokio, Berdintasun Planaren kopia bat ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarritako 3/2007 Legearen arabera horretara behartuta badago.

Aldi baterako eratzen diren enpresa-elkartek edo elkarrekin parte hartzen duten erakunde lizitatzailerek aurkeztutako eskaintzen kasuan, elkarteko kide bakoitzak aipatutako adierazpena aurkeztu beharko du.

5. Dagozkion ogasunek (Nafarroako Foru Ogasunak eta/edo Estatuko Ogasunak eta/edo Foru Ogasunak) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiri positiboak, erakunde lizitatzailerik zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen dutenak, hurrenez hurren. Ziurtagiri horiek proposamenak aurkezteko epea amaitu baino sei hilabete lehenago egin beharko dira, gehienez ere.

Aldi baterako eratzen diren enpresa-elkartek edo elkarrekin parte hartzen duten erakunde lizitatzailerek aurkeztutako eskaintzen kasuan, elkarteko kide bakoitzak aipatutako adierazpena aurkeztu beharko du.



6. Erakunde lizitatzailleak kontratuaren xede diren prestazioen zati bat Enplegu Zentro Bereziekin edo Gizarteratzeko Zentroekin azpikontratatu nahi badu, enpresa azpikontratisten zerrenda zehatza aurkeztu beharko du, bai eta enpresa horiekin konpromiso formala duela egiaztatzen duen jatorrizko dokumentu bat ere, enpresa bakoitzarekin azpikontrataturako den kontratuaren zatia zehaztuz.

7. Altsasutik kanpo helbideratutako erakunde lizitatzailleentzat Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda eta egunean egotearen ziurtagiria. Lizitatzaillearen helbidea Altsasuko udaletxean badago, ofizioz egiaztatuko da betebehar hori betetzen dela.

Epe horretan beharrezko dokumentazioa aurkezten ez bada, erakunde lizitatzaillea prozeduratik kanpo geratuko da, eta horrek kontratuaren zenbateko zenbatetsiaren % 5eko zigorra eta kalte-galeren kalte-ordain osagarria ordainduko ditu, ehuneko hori gainditzen duen guztian.

16. ADJUDIKATZEKO PROPOSAMENA.

Kontratazio-mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organoari. Proposamenak proposamen onargarria egin duten entitateen lehentasun-ordena adieraziko du, esleipen-irizpideak aplikatuz lortutako puntuazioekin.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko kontratua esleitzeko ebazpena onartzen ez den bitartean.

17. ADJUDIKAZIOA:

1.- Adjudikazioa. Kontratazio-organoak kontratua esleitzeko ebazpena emango du, gehienez ere hilabeteko epean, formulen bidez kuantifika daitekeen eskaintza jendaurrean irekitzen denetik zenbatzen hasita. Ebazpen hori arrazoitua izango da, eta gutxienez eskaintzak zergatik baztertu diren eta hautatutako eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak jasoko ditu.

2.- Kontratua burutzea.- Kontratua esleitzearekin batera burutuko da kontratua. Esleipen-egintzaren eraginkortasuna 10 egun naturaleko epean etengo da, esleipenaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita. Esleipen-egintza bertan behera geratuko da kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa jartze hutsarekin, harik eta erreklamazioa ebazten den arte.

3.- Huts deklarazioa.- Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak esleipen-prozedura esleitu gabe utzi ahal izango du, arrazoiak emanez.

4.- Esleipenaren jakinarazpena.- Esleipena, erabaki ondoren, lizitazioan parte hartzen duten entitateei jakinaraziko zaie eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da, Foru Legearen 102. artikuluan ezarritakoaren arabera.

18. BERMEAK.

Kontratua formalizatu aurretik, esleipendunak esleipenaren zenbatekoaren % 2 Udalaren



alde gordailutuko du.

Enpresa kontratistak berme-epea amaitu arte dituen betebeharrak betetzeari eragingo dio bermeak, eta, bereziki, berandutzeagatiko zigorrak ordaintzeari eta kontratua gauzatzean enpresa horrek sor ditzakeen kalte-galerak konpontzeari.

Halaber, berme hori konfiskatu ahal izango da kontratua enpresa kontratistaren erruz ez betetzeagatik suntsiarazten den kasuetan, egiaztatu diren kalte-galerak estaltzeko behar den zenbatekoan.

Bermea Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 70.3 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan eratu ahal izanen da.

Bermea ofizioz itzuliko da kontratuaren bermealdia amaitu ondoren, eta alde zuzenetik unitate kudeatzaileak txostena egingo du kontratua Udalak nahi bezala bete dela edo enpresa kontratistaren errurik gabe ebatzi dela egiaztatzeko.

19. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Merkataritza-kontratua gehienez ere hamabost eguneko epean sinatuko da, esleipena jakinarazten denetik zenbatzen hasita, salbu eta kontratazio publikoaren arloko erreklamazio-bidean etetea erabakitzen bada, ATABO Altsasu, SLk adierazten duen egunean.

Enpresa esleipendunaren erruz kontratua ez bada egun horretan sinatzen, ATABO Altsasu, SLk ez-eraginkortzat jo ahal izango du esleipena, eta enpresa esleipendunak kontratuaren balio zenbatetsiaren % 2 ordaindu beharko dio ATABO Altsasu, SLri, kalte-galeren kalte-ordain gisa. Deklarazio hori egiten bada, ATABO Altsasu SLk kontratua esleitu ahal izango dio hasierako esleipendunaren hurrengo puntuazioa lortu duen lizitatzailerari.

Kontratua eskritura publikoan jaso ahal izango da kontratistak hala eskatzen duenean, eta haren kontura izango dira kontratua egilesteak dakartzan gastuak.

Kontratua formalizatu aurretik, enpresa esleipendunak kontratuaren balio zenbatetsiaren % 2ko fidantza aurkeztu beharko du, BEZik gabe, eta gehienez ere 5 eguneko epean gordailutu beharko da, jakinarazten denetik zenbatzen hasita, Atabo Altsasu SLk emandako kontu-zenbakian. Fidantza hori kontratua amaitutakoan itzuliko da, haren eskura jarritako instalazioak eta ondasunak egoera onean daudela egiaztatu ondoren.

20. KONTRATUA GAUZATZEA.

Enpresa esleipendunak baldintza hauetan adierazitako moduan eta baldintzetan gauzatu beharko ditu kontratatutako zerbitzuak, Atabo Altsasu, SL enpresak gainbegiratuta. Horrela, kontratua Atabo Altsasu SLrekin adostutako egunean hasi beharko da gauzatzen. Era berean, kontratu honen xede diren lan guztiak behar bezala egiteko behar diren neurri guztiak hartu beharko ditu, beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak erabiliz, eta horretarako sortzen diren kostu guztiak bere kontura izango dira.

A) TABERNA-JATETXEAREN USTIAPENARI BURUZKO BETEBEHARRAK



- a) Taberna, komunak, makineria eta beste elementu batzuk egoera ezin hobean mantentzea, bai kontserbazioaren bai higieniko-sanitarioren ikuspuntuetatik, eta hori lortzeko Atabo Altsasu, SLk har ditzakeen eskakizunak onartu beharko dira. Horri dagokionez, enpresa esleipendunaren kontura izango dira beharrezko konponketak eta birjarpenak, halako moldez non esleipen-denbora osoan zerbitzua eman dadin, gutxienez, formalizatu aurretik egiten den inbentarioan agertzen diren elementuekin.
- b) Tabernako zerbitzuek ukitutako ingurunea garbi mantentzea, eta beharrezko bitartekoak jartzea: paperontziak, hautsontziak, erratza pasatzea, garbitzea, etab. Tabernak ukitutako eremu guztietara zabalduko da betebeharra (komunak, mahaitxoak, terrazak, etab.).
- c) Tabernan jarduten dutenek elikagaiak manipulatzeko prestakuntza izan beharko dute, bai eta lortu beharreko baimen guztiak ere.
- d) Kontsumizioak kartan adierazitako prezioan kobratzea; kartak jendaurrean ikusgai egon beharko du.
- e) Establezimendu horretan erretzea debekatuko da, tabako-kontsumoa prebenitzeko otsailaren 14ko 6/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera.
- f) Enpresa esleipendunak unean-unean indarrean dagoen legeria bete beharko du alkoholaren salmentari dagokionez, batez ere adingabeei alkohola saltzeari dagokionez.
- g) Enpresa esleipendunak ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman beharko du, eta tabernaren ustiategiaren titulartasuna aldatu, kontratua formalizatu eta 7 eguneko epean.

Atabo Altsasu SLk bere gain hartuko du tabernaren ustiapenetik eratorritako kontsumo guztien ordainketa, betiere kontsumo horiek azken bi urteetan hilabete bakoitzari dagokion batez bestekoa % 150ean gainditzen ez badute.

Gaindituz gero, soberakina enpresa esleipendunaren kontura izango da. Kalkulu horretatik kanpo geratzen dira horniduren prezioen aldaketak.

B) KIROLGUNEAREKIKO BETEBEHARRAK

Enpresa esleipendunak Dantzalekuko aldagelak garbitu beharko ditu kirol-ekitaldiak egiten diren larunbat eta igandeetan.

Atabo Altsasu, SLren kontura izango dira garbiketa-horniduren gastuak.

C) LAN-ARLOKO BETEBEHARRAK

Enpresa esleipendunak kualifikatutako langileekin egin beharko ditu lanak, eta bere kontura izango dira soldatei, gizarte-segurantzari, lan-istripuei, lan-mutualismoari, prestakuntzari, segurtasunari eta higieneari eta abarri buruz unean-unean indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen lan-betebeharrak.



Emakidadunak bere kontura zerbitzurako ekarpena egiten edo erabiltzen duen langileak ez du inolako lan-harremanik izango Atabo Altsasu SLrekin, hura esleipendunaren mende baino ez dagoela ulertzen delako. Esleipendunak patronatukide gisa dagozkion eskubide eta betebeharrak guztiak izango ditu aipatutako langileekiko, lan-legeriaren arabera, eta ez da inola ere esleipendunaren eta haren langileen artean sortutako betebeharren erantzukizunik izango, ezta kaleratzearen edo zeharkako interpretazioaren ondorio gisa hartutako betebeharren erantzukizunik ere.

Hala, emakidadunak beharrezkoak diren kontratazioak egin beharko ditu, indarrean dagoen legerian aurreikusitako formularen bat erabiliz, emakida azkentzen denean kontratu horiek automatikoki suntsiarazi ahal izateko, baldintza-agirian aurreikusitako edozein arrazoirengatik. Estipulazio hau betetzen ez bada, edo kontzesioa azkentzean kontratu mugagabeak edo suntsiezinak sinatzen badira, kontzesiodunaren kontura izango dira lan-arloan eta gizarte-segurantzaren arloan indarrean dagoen legeria aplikatzearen ondoriozko kalte-ordainak eta gainerako betebeharrak ekonomikoak, indarrean dauden lan-kontratuak azkentzearen ondoriozkoak, alegia. Fidantza konfiskatuz erantzungo da ez-betetzearen aurrean, eta Atabo Altsasu SL emakidadunak egiten dituen lan-harremanetatik kanpo mantenduko da, eta ez da bidezkoa izango egindako kontratuen enpresa-oinordetza.

Emakidadunak Atabo Altsasu, SLri emango dizkio bere zerbitzura dituen langile guztien kontratuen eta Gizarte Segurantzako alta-, baja- edo aldaketa-parteen fotokopiak, eta, hilerok, egindako kuoten likidazioen fotokopia bidaliko dio Gizarte Segurantzari.

Halaber, esleipendunak tabernaren ustiapena kudeatzeko erabiltzen dituen langileek zerbitzua emateko prestakuntza profesional egokia izango dute.

Esleipendunak lan egiteko behar dituzten arropa eta tresnak eman beharko dizkie langileei.

Lan-betebeharrak horietako edozein betetzen ez bada, Atabo Altsasu SLk kontratua suntsiarazteko ahalmena izango du, eta, nolana ere, arlo horretako erantzukizun orotatik salbuetsita geratuko da.

D) EUSKARAREN EZAGUTZA

Enpresa esleipendunak euskarazko arreta bermatu beharko du jendaurreko ordutegietan, ustiapenaren jabea edo titularra edozein dela ere. Aldez aurretik euskara-proba bat egin beharko dute (EGA titulua edo baliokidea egiaztatzen ez badute), eta horretarako izena eman beharko dute ATABO Altsasu SL erregistroan, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen. Telefonoz jakinaraziko da probaren eguna eta ordutegia, eta automatikoki baztertuko da proba gainditzen ez duena.

Euskara-proba egiten duen eta gainditzen duen pertsonak jendaurreko arreta-zerbitzua eman beharko du nahitaez (bai tabernakoa, bai gainerako instalazioetako), dela kontratuaren titularra, dela kontratatutako pertsona bat. Azken hori ezin bada bete, hizkuntza-eskakizun egokia duen beste pertsona bat izendatu beharko da, gehienez ere hamar eguneko epean, eta,



Atabo Altsasu S.L.
B-71026074
C/Garcia Ximenez 36, Alsasua 31800

hala badagokio, dagozkion probak egin beharko dira.

E) HIZKUNTZA ETA IRUDI BARNERATZAILEAK

Enpresa esleipendunak komunikazioarekin, hizkuntzaren erabilerarekin, irudiekin eta musikarekin zerikusia duen jarduera oro modu ez-sexista eta inklusiboan egingo da, Altsasuko Udalak barne hartzen duen hizkuntza eta irudia arautzen duen ordenantzaren arabera (2011ko urriaren 27ko Nao, 214. zk.).

21. ARRISKUA ETA MENTURA.

Kontratu hau enpresa esleipendunak bere gain hartuko du, eta ez du galerak edo matxurak direla-eta kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Enpresa esleipendunak ezin izango du kontratuaren baldintza ekonomikoak aldatzeko inolako aitzakiarik jarri, ez eta akats edo omisioren bat gertatzen bada ere.

Atabo Altsasu SL ez da, inola ere, enpresa esleipendunak hornitzaileei ez ordaintzearen erantzule izango, ez eta tabernan, biltegietan edo hark instalatutako makinetan egin daitezkeen narriadura, lapurreta edo ebasketen erantzule ere.

22. KONTRATUAREN ALDAKETAK.

Aldez aurretik onartutako lanen edo irizpideen gainean aldaketaren bat egin behar denean, enpresa esleipendunak dagokion proposamena idatziko du, eta Atabo Altsasu, SLri egokituko zaio erabakia hartzea.

Atabo Altsasu, SLren onespenez erabakirik gabe, aldez aurretik eta modu frogagarrian, enpresak ezin izango dio inolako aldaketarik egin kontratuaren xede den proiektuari, eta, are gutxiago, zenbatekorik erreklamatu, aldaketa hori gertatzen bada. Kasu horretan, Atabo Altsasu, SLk erabakitakoa defendatzeko egokitutako jotzen duen akzioa erabili ahal izango du.

Enpresa esleipendunak uste badu agindutako irizpideak eta lanak ez datozela bat zehatz-mehatz kontratatutakoekin, eta, beraz, kontratua aldatu behar bada aurrez ezarritako kostuan eta/edo epean, nahitaez eskatu beharko dizkio Atabo Altsasu SL enpresari egoki iritzitako aldaketak, modu sinesgarrian, eta berariazko eta idatzizko baimena eduki beharko du, aurrekoen ordezkari baldintza berriekin.

Adierazitako moduan egiten ez bada, ez dira aintzat hartuko kostuari eta/edo epeari buruzko erreklamazioak

23. KONTRATUAREN, ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ESKU-HARTZEA ETA IKUSKAPENA.

ATABO Altsasu, SLk kontratatutako zerbitzua ikuskatzeko ahalmena izango du. Zerga-, osasun- eta teknika-arloko legeak eta administrazio-xedapenak betetzen direla zaintzeko beharrezkoak diren ikuskatze- eta fiskalizatze-ekintza guztiak ere egin ahal izango dira.



Honako hauek izango dira falta oso astunak:

- a) Ez hastea hitzartutako egunean kontratatutako zerbitzuak ematen.
- b) Kontratatutako zerbitzuen ustiapena edozein tituluren bidez eskualdatzea.
- c) Elikagaiak manipulatzeko txartela ez duten langileek jardutea, edota behar diren baimen guztiak izan gabe lanean aritzea.
- d) Kontratua gauzatzeko kontratatutako langileek lan-kontraturik ez izatea edo Gizarte Segurantzaren alta ez ematea.
- e) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda ez egotea, dagokien epigrafeetan. Horrek ez du galaraziko dagokien zerga-arloko zehapena ezartzea.
- f) Taberna edo zerbitzuari atxikitako instalazioak, makineria eta beste elementu batzuk kontratu honen xede den zerbitzua emateko ez beste zerbitzu batzuk emateko erabiltzea.
- g) Plegu honetan aipatutako suteen edo erantzukizun zibilaren polizarik ez izatea.
- h) ATABO Altsasu, SL enpresarekin zorrak izatea, kontratu honen ondorioz.
- i) Legezko eskakizunak betetzen ez dituzten makina banagailuak jartzea.
- k) Alkoholen eta tabakoaren salmentari eta jendearentzako irekiera-ordutegiari buruz indarrean dagoen legeria urratzea.
- l) Dokumentuak faltsutzea.
- m) Gizarte Segurantzari dagozkion kotizazioetan eta diru-sarreretan egunean ez egotea.
- n) Eraikinean obrak edo aldaketak baimenik gabe egitea, dagokion hirigintza-zehapena gorabehera.
- p) Atabo Altsasu, SLren berariazko baimenik gabe obrak eta instalazioak egitea.
- q) Baimendutako balioen gaintetiko soinu-kutsadura (musika, zaratak...) sortzea.
- r) Lokalean delituzko jarduerak egitea edo horretan laguntzea.
- s) Ordainketak etetea, porrota edo hartzekodunen konkurtsoa, eta, edonola ere, kontratua azkentzea edo desegitea, pertsona juridikoa bada.
- t) Astuntzat jotako bi falta egitea.
- v) Kontratua gauzatzeko baldintzak ez betetzea (12. klausula).

Honako hauek hartuko dira falta astuntzat:

- a) Atabo Altsasu SL kontrataren fiskalizazioa edo ikuskapena oztopatzen edo eragozten duten egintzak edo omisioak.
- b) Urtebeteko epean arintzat jotako bi falta egitea.
- c) Emandako epean behin betiko fidantza ez jartzea edo eskatutakoa baino zenbateko txikiagoko fidantza eratuta ez edukitzea.
- d) Lokala, elementuak eta instalazioak behar bezala ez mantentzea, bai funtzionamenduari dagokionez, bai higienez eta garbitasunari dagokionez, bai eta lokalari atxikitako langileei dagokienez ere, Atabo Altsasu SLk horri buruz egindako errekerimenduei jaramonik egin gabe.
- e) Prezioen karta jendaurrean ez edukitzea.

Gainerako arau-hausteak arintzat joko dira.

Arau-hausteak honela zehatuko dira:

- a) Kontratua kasu hauetan suntsiaraziko da:
 - Kontratatutako zerbitzuak ematen ez hastea.



Atabo Altsasu S.L.
B-71026074
C/Garcia Ximenez 36, Alsasua 31800

- Kontratutako zerbitzu guztiak ez ematea.
- Falta astun eta/edo oso astun gisa zigortutako hiru arau-hauste egitea.
- Kontratua gauzatzeko baldintzak ez betetzea.

b) 901 eurotik 1.500 eurora bitarteko isunarekin, oso larritzat jotako gainerako faltak.

c) 601 eurotik 901 eurora bitarteko isunarekin, larritzat jotako arau-haustea.

d) 600 eurorainoko isunarekin, arintzat jotako arau-haustea.

Edozein kasutan, zehapena ezarri aurretik, legeriak orokorrean ezarritako zehapen-prozedura bete beharko da.

Hutsegite arinak hilabetea preskribatuko dira; larriak, urtebetea; eta oso larriak, hiru urtean. Preskripzio-epea falta egiten denetik hasiko da kontatzen.

25. DATUEN BABESA.

Datuak babesteko araudian xedatutakoaren arabera, lizitatzailerik jakinarazten zaie Atabo Altsasu SL dela beren datuen tratamenduaren arduraduna, eta lizitazioko parte-hartzea kudeatzeko erabiliko direla, eta adjudikazioduna izanez gero, alderdien arteko harreman juridikoa kontrolatzeko eta gauzatzeko erabiliko direla. Era berean, lizitatzailerik jakinarazten zaie Atabo Altsasu SLk egokitzen dituen bitartekoen bidez argitaratzen direla bai lizitatzailerik datuak, bai kontratua esleitzen zaien datuak.

Atabo Altsasu SL legitimatuta dago lizitatzailerik eskaintza aurkeztuz emandako adostasunaren bidez lizitatzen dutenen datuak tratatzeko; adjudikaziodunaren datuak tratatzeko, berriz, legitimatuta dago lizitazio honen xede diren zerbitzuak emateko kontratua betearaztearen ondorioz, eta Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legeak baimentzen du datuak argitaratzea.

Datuak adierazitako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, eta Udalak tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak izan ditzakeen bitartean biltegiatuko dira. Era berean, Artxibo eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio-arauak bete behar dira.

Lizitatzen dutenek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta, egoera jakin batzuetan, datuen tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskatzeko ere, dpd@alsasua.net, dpd@altsasu.net helbidera jota. Era berean, jakinarazten dizugu erreklamazio bat aurkez dezakezuela Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean, idatziz, helbide honetara idatzita: Jorge Juan kalea 6, 28001 (Madril), edo zure egoitza elektronikoaren bidez (www.agpd.es).



Atabo Altsasu S.L.
B-71026074
C/Garcia Ximenez 36, Alsasua 31800

I. ERANSKINA
-ESKABIDE-EREDUA –
(A gutun-azalean sartu beharrekoa)

_____jaunak/andreak
(helbidea: _____; NAN: _____
Telefonoa: _____ Faxe: _____), bere kabuz edo
_____ jaunaren/andrearen izenean (dagokiona hautatu)
(helbidea: _____ IFZ: _____ Telefonoa:
_____ Faxe: _____). "ALTSASUKO DANTZALEKU KIROLGUNEKO
TABERNA-JATETXEAREN KUDEAKETA" lanaren kontratazioa arautuko duen pleguaren berri
izan dut, eta hori dela-eta

AZALTZEN DUT:

- Kontratazio hau arautzen duten baldintzak zein diren jakinda, konpromisoa hartzen dut kontratu hau zorrotz betetzeko, eta horretarako "ALTSASUKO DANTZALEKU KIROLGUNEKO TABERNA-JATETXEAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO PROPOSAMENA" gutun-azala aurkezten dut, eta haren barruan bi gutun-azal hauek:

- B GUTUN-AZALA: "GAITASUNA ETA KAUDIMENA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA".
- C GUTUN-AZALA: "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK"

- Kontratuaren helburuak edo jarduerak lotura zuzena du kontratuaren xedearekin, eta hura behar bezala gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak dituen erakunde bat dut.

- Berariaz onartzen dut posta elektronikoa erabiltzea honako helbide elektroniko honetan jakinarazpenak egiteko: _____

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, agiri hau egin eta sinatzen dut.

_____ (e) n, 2022ko _____aren ____ (e) (a) n

(Sinadura)



Atabo Altsasu S.L.
B-71026074
C/Garcia Ximenez 36, Alsasua 31800

II. ERANSKINA (A gutun-azalean sartu beharrekoa)

KONTRATATZEKO ESKATZEN DIREN BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

ALTSASUKO DANTZALEKU KIROLGUNEKO TABERNA-JATETXEAREN USTIAPENA

_____jaunak/andreak_____
_____ NAN/IFZ: _____; jakinarazpenetarako
helbidea: _____ PK, _____ herria: _____;
faxe: _____ bere izenean edosozietatearen
ordezkari gisa (ez dagokiona ezabatu) _____ IFK:

Nire erantzukizunpean deklaritzen dut:

- Nik ordezkatzeko dudako entitateak kontratatze baliak betetzen ditut (adierazi dagokionaren arabera) eta ez dago sarturik Kontratu Publiko bali buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22tik 26ra bitarteko artikuluetan zerrendatutako kontratatze bali ezein debekutan.
- Esleipena lortuz gero, konpromisoa hartzen dut agiri honetan eskatzen diren agiriak baliadala eta baliak direla egiaztatze, gehienez ere zazpi eguneko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.
- Konpromisoa hartzen dut kontratua sinatu aurretik eskatutako dokumentuak aurkezteko, kontratazioa arautzen duen administrazio-klausula zehatzen pleguan ezarritakoaren arabera.
- Kontratuaren xedeak edo jarduerak lotura zuzena du kontratuaren xedearekin, eta kontratua behar bezala gauzatzeko behar adina giza baliabide eta baliabide materialak ditut.
- Egunean ditut indarreko lege-xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak, laneko segurtasun eta osasunarekikoak eta laneko arriskuen prebentzioarekikoak, bai eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekikoak ere.
- Agiri honetan eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, tekniko eta profesionala ditut.
- Honako hau deklaritzen dut isilpean gordetzeko moduko dokumentaziotzat:

Lekua, data eta sinadura.



Atabo Altsasu S.L.
B-71026074
C/Garcia Ximenez 36, Alsasua 31800

III. ERANSKINA (C gutun-azalean sartu beharrekoa)

FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEKEEN ESKAINTZA-EREDUA

ALTSASUKO DANTZALEKU KIROLGUNEKO TABERNA-JATETXEAREN KUDEAKETA

_____ jaunak/andreak _____
NAN/IFZ: _____; jakinarazpenetarako helbidea: _____
PK, _____ herria: _____; faxak: _____
_____ bere izenean edo sozietatearen ordezkari gisa (ez
dagokiona ezabatu) _____ IFK: _____

Konpromisoa hartzen dut zerbitzua jarraian egiten den eskaintzaren arabera gauzatzeko:

- Kontratu hau gauzatzeko lan-merkatuak kaltetutako edo lan-egoera larrian dauden pertsonak kontratatzeko konpromisoa:

Lekua, data eta sinadura.